

IL AZALPEN PROBA • <i>Vredaman</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Zer ibili naiz esaten, seña? Bai, Tasio ezkondu zenekoa. Egia. Handia egin genion guk Tasiorik ezkondu zenean. Berak ezetz eta ezetz lehenengo, baina guk baietz, ohitura zela hori, eta konbentzitu azkenean. Eta han sartu genuen Tasio Muturen batean, ezkontzeko trajearekin. Eta hori portu aurrean dagoen haitzeraino joan ginen, Galdara esaten genion guk. Galdarako haitza esaten genion horri. Orain ez. Orain gauzek ez daukate izenik. Orain haitza esaten diote. Edo harria. Orain izen barik bizi da jendea. Mmmmm... Zenbat metro egongo da haitzetik portura, Gur? Ehun? Gutxiago? Gutxiago ez. Gehiago ere bai. Ehun eta piku bai. Mmmmm... Eta han utzi genuen Tasio. Galdarako haitzean. Ezkontzeko trajearekin. Baina asmoa bagenuen guk haren bila joateko, geroago, apur bat sufritu eta gero; batela atzera hartu eta Tasioren bila joateko asmoa bagenuen guk. Baina nerbioso jarri zen Tasio. Pertsona nerbioso zer zen Tasio.